



**ERRETERIA
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Espediente zk./Nº Expediente: 2023IGOB0018

Gaia/Asunto: 2023/10/17 Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkura/Sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local 17/10/2023

Tokiko Gobernu Batzarra 2023ko urriaren 17an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

Errenteriako Udaletxean, 2023ko urriaren 17ko 09:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna
- Eñaut Gracia Ibarra

ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkari orokorra.

1. 2023ko irailaren 19ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea. (2023IGOB0017)

Oharrik gabe onartu da.

Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 17 de octubre de 2023.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:30 horas del día 17 de octubre de 2023, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), las siguientes Concejales y Concejales:

ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna
- Eñaut Gracia Ibarra

ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Nagore Sarasola Otermin.

1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 19 de septiembre de 2023. (2023IGOB0017)

Se aprueba sin observación alguna.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

2. Errenteriako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2024-2027 Araudi Plana onartzea. (2023ZBAR0008)

Gure udalean badira planifikazio tresna desberdinak funtsezkoak aurrera egiteko, besteak beste, indarreko legegiak xedatutako gobernu ireki eredu baterantz.

Administrazio publikoek eta horien artean tokiko administrazioek ere beren jarduerak gauzaten dituzten arloetan, gobernu irekiko politikak inplementatzeko gaitasuna dute, eta horietako oinarrizko ardatzetako bat da herritarren parte-hartzea.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak (oinarrizko izaera duen estatu-araudia nahiz erkidegoarena) gobernu irekirako adierazpenei ere ekiten die udalerriek araudi-xedapenak lantzerakoan. Horrela, bada, gobernu irekiak beste dimentsio bat hartzen du udal erregelamenduak eta ordenantzak lantzeko irekitako prozesuen bidez, non bertan helburu nagusietako bat den erregulazioaren kalitatea hobetzea herritarren parte-hartzea bermatzeko hainbat tramite sartuta araudi-xedapen horiek lantzeko prozesuetan.

Tokiko erakunde guztiek gure eskumen-eremuaren barruan arautzeko ahalmena badugunez, beharrezkoa da beste erregelamendu eta ordenantza batzuk landu eta tramitatzea edo indarrean daudenak aldatzeari ekitea, hain zuen ere, udal planifikazio tresna desberdinetan jasotako zerbitzuak, proiektuak edo ekintza estrategikoak arautzeko egoki

2. Aprobación del Plan Normativo 2024-2027 del Ayuntamiento de Errenteria y sus organismos autónomos. (2023ZBAR0008)

Resultando que en nuestro ayuntamiento existen diferentes instrumentos de planificación fundamentales para avanzar, entre otras cuestiones, hacia un modelo de gobierno abierto en el sentido dispuesto en la legislación vigente.

Resultando que en los diferentes campos de actuación en los que desarrollan su actividad las diferentes Administraciones Públicas y entre ellas también las locales, tienen capacidad de implementar políticas de gobierno abierto, uno de cuyos ejes fundamentales es el de la participación ciudadana.

Considerando que el ordenamiento jurídico vigente (tanto la normativa estatal básica como la autonómica), también aborda las manifestaciones del gobierno abierto en la elaboración de disposiciones normativas por los municipios. Así el gobierno abierto adquiere una nueva dimensión también a través de la apertura de los procesos de elaboración de los reglamentos y ordenanzas municipales, que centra uno de sus objetivos en la mejora de la calidad de la regulación a través de la introducción de distintos trámites en garantía de la efectiva participación ciudadana en los procesos de elaboración de dichas disposiciones normativas.

Considerando la potestad reglamentaria que dentro de nuestro ámbito competencial ostentamos todas las entidades locales, resulta necesario elaborar y tramitar nuevos reglamentos y ordenanzas o acometer la modificación de las vigentes para regular servicios, proyectos o acciones estratégicas recogidas en los diferentes instrumentos de



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

implementatu eta garatzeko.

Halaber, ohiko udal kudeaketa efikazagoa, eraginkorragoa, kalitatezkoa izan dadin, egungo gizarte errealitatearen eta arau-esparruarekin bat etorrita, egokitzat eta komenigarritzat jotzen da unean uneko aldaketei ekitea eta, are gehiago, indarrean dauden garrantzi handiagoko erregelamenduak eta ordenantzak errebisatzea edo, hala balegokio, beharrezkotzat jotzen diren beste arau-proiektu batzuk lantzea.

ARAUDI APLIKAGARRIA

- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzkoa (8.1.b) artikulua).
- Sektore-legeri espezifikoa Araudi Planean aurreikusitako udal erregelamendu eta ordenantza zehatzen planifikazioari aplikatu dakizkiokeenak
- 2023ko ekainaren 19ko alkatetzako dekretua alkatearen hainbat eskuduntza tokiko gobernu batzordearengan eskuordetzen dituen

planificación municipales para su adecuada implantación y desarrollo.

A su vez, con el objeto de desarrollar una gestión ordinaria municipal más eficaz, eficiente, de calidad, acorde con la realidad social y marco normativo actual, también resulta idóneo y conveniente acometer modificaciones puntuales e incluso revisiones de mayor calado de reglamentos y ordenanzas vigentes o en su caso elaborar nuevos proyectos normativos si se considera necesario.

LEGISLACIÓN APLICABLE

- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno (art. 8.1.b).
- Legislación sectorial específica aplicable a la planificación de los reglamentos y ordenanzas municipales concretas previstos en el Plan Normativo
- Decreto de alcaldía de fecha 19 de junio de 2023 de delegación de competencias de la Alcaldesa en la Junta de Gobierno Local



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

ZUZENBIDE OINARRIAK

Planaren objektua eta helburuak:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluan ezartzen da Administrazio Publikoek beharturik daudela urtero Araudi Plana onartzera. Bertan jasoko dira aurkeztuko diren legezko edo arauzko ekimenak hurrengo urtean onartuak izan daitezten. Behin onarturik, Urteko Araudi Plana egokitzen zaion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

Planifikazioaren ikuspuntuaren arabera, aipatutako legezko betebeharez gain, ezinbestekoa da udal sailen, departamentuen eta zerbitzuen udal araudia landu eta tramitatzeko beharrei eta aurreikuspenei dagokienez ere norabidea definitzea.

Helburu horretarako, eta agindua tokiko administrazioari ere aplikatu behar zaionez, Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak eremuetako lankidetzarekin eta Kudeaketa Gune Orokorrraren gidaritzapean, legeak exijitzen duenaren arabera Urteko Araudi Plana ez ezik, **Araudi Planaren aurreikuspena agintaldi amaiera arte** ere landu da aurreko agintaldian gauzatu zen moduan. Era horretan, ahaleginak egin dira Plana planifikatu eta koordinatzeko tramitatzen diren ekimen guztien koherentzia ziurta dadin, eta denbora tarte labur batean jarduera sektore edo area jakin bati aplikatu beharreko lege-erregimenaren elkarren segidako aldaketak saihestearren ahal den neurrian.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Objeto y objetivos del Plan:

El artículo 132 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contiene la obligación de las Administraciones Públicas, de aprobar anualmente un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente.

Desde el punto de vista de la planificación, además de por las obligaciones legales mencionadas, resulta imprescindible definir el rumbo también en lo referente a las necesidades y previsiones de elaboración y tramitación normativa municipal de las diferentes áreas, departamentos y servicios municipales.

A tal fin, y puesto que el precepto es también aplicable a la administración local, se ha elaborado con la colaboración de los ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía y bajo la dirección del Ámbito de Coordinación General (KGO), no sólo el Plan Normativo Anual tal y como lo exige la ley, **sino la previsión del Plan Normativo hasta el final del presente mandato**, tal y como se realizó también en el anterior mandato. Se ha tratado de este modo de planificar y coordinar dicho Plan con el objeto de asegurar la congruencia de todas las iniciativas que se tramiten y de evitar en lo posible sucesivas modificaciones del régimen legal aplicable a un determinado sector o área de actividad en un corto espacio de tiempo.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Legezko betebeharra da Plana onartzea, baina bere planifikazio tresna izaera dela-eta onesten du, erregulazio zehatzagorik ere ez dagoenez, indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen beharrei aurre egiteko egoki diren aldaketak burutzea ordenamendu juridikoaren errealitateari egokitzea ahalbidertzeko, hala nola testuinguru sozioekonomikoari, izan ere, hasiera batean jaso ezin izan diren beste arau batzuk edo hauen aldaketak txertatzea eska dezake.

Araudi plana udal-sail, -departamentu eta -zerbitzu guztien eta tokiko erakunde autonomoaren proposamenetan oinarrituta egin da.

Aldi berean, 2020-2023 Araudi Planaren jarraipena egin da, jatorrizko planean zein haren aldaketetan aurreikusitako araudiak (ordenantzak eta erregelamenduak) onartu diren ala ez egiaztatzeko, eta, hala badagokio, agintaldi berrirako orain egindako planean berriz ere sartu izana justifikatzeko.

Planaren iraupena:

2024-2027 epealdia

Finantziario gastuak:

Plan honek ez dio inolako finantziario kosturik suposatzen Udalari. Hala badagokio, plan honen aurreikuspena garatzeko gauzatzen den arau-xedapen bakoitza onartzeko espedienteaz aztertu beharko da horrek izan dezakeen eragin ekonomikoa.

La obligación legal es la de aprobar el Plan, pero dada su naturaleza de instrumento de planificación admite, puesto que tampoco existe una regulación más detallada, las modificaciones que resulten oportunas derivadas de las necesidades que pudieran producirse durante su vigencia para facilitar su adaptación a la realidad del ordenamiento jurídico, y al contexto socioeconómico que puede requerir de la incorporación de nuevas normas o modificaciones que no pudieron recogerse inicialmente.

El Plan Normativo se ha elaborado a partir de las propuestas de todas las áreas, departamentos y servicios municipales y del organismo autónomo local.

Simultáneamente se ha realizado el seguimiento del Plan Normativo 2020-2023 a los efectos de constatar su cumplimiento o no en cuanto a la aprobación de las normativas (ordenanzas y reglamentos) previstos tanto en el plan originario como en sus sucesivas modificaciones y en su caso justificar su inclusión nuevamente en el plan ahora elaborado para el nuevo mandato.

Duración del Plan:

Periodo 2024-2027

Gastos de financiación:

Este Plan no supone ningún coste de financiación para el Ayuntamiento. En su caso, habrá de analizarse en el expediente de aprobación de cada una de las disposiciones normativas que se ejecuten en desarrollo de la previsión del presente plan la repercusión económica que pudiera tener, caso de



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Idazkari orokorrak aldeko txostena eman du.

Alkateak egindako erabaki-proposamena, eta Idazkari orokorrak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Errenteriako Udalaren eta bere erakunde autonomoaren Araudi Plana 2024-2027 onartzea, non bertan txertatzen den Antolaketa, Lurralde eta Herritarrak arloetako arau ekimenei aurreikuspena (espedientean jasota dago).

Bigarren.- Agintaldi amaiera arteko Araudi Planaren aurreikuspena denez eta bere planifikazio tresna izaera dela-eta, dagokion malgutasuna onestea planari indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen beharrei aurre egiteko eta Tokiko Gobernu Batzordeko akordio bidez egoki jotzen diren aldaketak txertatu ahal izateko. Hori guztia, ordenamendu juridikoaren errealitateari egokitzea ahalbideratzeko, hala nola testuinguru sozioekonomikoari, izan ere, hasiera batean jaso ezin izan diren beste arau batzuk edo hauen aldaketak Araudi Planean txertatzea eska dezake.

tenerla.

La Secretaria general ha emitido informe favorable.

Vista la propuesta de acuerdo de la Alcaldesa y la conformidad dada por la Secretaria general a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

En ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

Primero.- Aprobar el Plan Normativo 2024-2027 del Ayuntamiento de Errenteria y su organismo autónomo local que incluye la previsión de las iniciativas normativas de los ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía (que consta en el expediente).

Segundo.- Puesto que se trata de una previsión del Plan Normativo hasta el final del presente mandato, dada su naturaleza de instrumento de planificación, reconocer la flexibilidad que el mismo ha de tener para que puedan incluirse mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local las modificaciones que resulten oportunas derivadas de las necesidades que pudieran producirse durante su vigencia. Todo ello al objeto de facilitar su adaptación a la realidad del ordenamiento jurídico, y al contexto socioeconómico, que pueden requerir de la incorporación al Plan Normativo de nuevos proyectos normativos o modificaciones de los vigentes que no han podido recogerse inicialmente.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Hirugarren.- Betetzea Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean publizitate aktiboaren inguruan xedatutakoak, Araudi-plana Udalaren web-orrian argitaratuta.

Laugarren.- Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea Udaleko sail, departamentu eta zerbitzuei; erakunde autonomoari, Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak eremuei; Kudeaketa Gune Orokorrari, eta bereziki, arduradun politiko eta teknikoei, jakinaren gainean egon daitezen eta bete ditzaten.

Bosgarren.- Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea gainerako udalkideei.

3. TEKS elkartearen Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea. (2022IIIGE0005)

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkartearen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen,

2022ko martxoaren 01ean M.U.P.k **TEKS BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ELKARTEA** erakundea ordezkatzuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Espedientean, honako dokumentazioa ageria da:

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkartearen Erregistroan izena

Tercero.- Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en lo que se refiere a la publicidad activa publicando el Plan Normativo en la página web municipal.

Cuarto.- Poner en conocimiento de las áreas, departamentos y servicios municipales, del organismo autónomo local, de los ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía, del Ámbito de Coordinación General (KGO) y especialmente de las y los responsables políticos y técnicos el presente acuerdo y el documento aprobado para su conocimiento y cumplimiento.

Quinto.- Poner en conocimiento del resto de corporativos el presente acuerdo y el documento aprobado.

3. Inscripción de la asociación TEKS en el Registro Municipal de Asociaciones. (2022IIIGE0005)

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulator del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro

Con fecha 01 de marzo de 2022, M.U.P en representación de la asociación **TEKS BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ELKARTEA** solicita la inscripción en dicho registro.

En el expediente consta la siguiente documentación:

- Certificado de inscripción de la entidad en el Registro General de Asociaciones del Gobierno



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

eman izanaren egiaztagiri eguneratua.

- Elkartearen Estatutuak.

- Zuzendaritzako kargudunen zerrenda.

- Elkartearen helbidea.

- IFK

- Jardura Ekonomikoen gaineko Zergaren zein epigrafetan dagoen alta emana egiartatzen duen agiria.

2023ko urriaren 4ean Informazio eta Komunikazio Teknologietako arduradunak elkartearen inskribatzearen aldeko txostena eman du

Informazio eta Komunikazio Teknologietako delegatuak egindako erabaki - proposamena eta aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU

1.- **TEKS BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ELKARTEA**, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzaitzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

Vasco.

- Estatutos de la Asociación.

- Relación de las personas que ocupan cargos directivos.

- Domicilio social.

- CIF

- Epígrafe del Impuesto sobre Actuaciones Económicas en el que se acredite el alta.

El 4 de octubre de 2023 la responsable de Tecnologías de la Información y la Comunicación informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Tecnologías de la Información y la Comunicación y la conformidad dada por la asesora jurídica a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

1.- Proceder a la inscripción de la asociación **TEKS BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ELKARTEA** en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.



**ERRETERIA
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

4. BI KOLORETE elkarteak Elkarteak Udal Erregistroan inskribatzea. (2023IIIGE0001)

Kulturako zinegotzi ordezkariak eta idazkariak adierazi dute deialdia burutu ostean egiaztatu dela elkarteak jakinarazpenetarako helbidea, egoitza soziala eta egoitza fiskala udalaren Lekuona erakinaren helbidean zehaztu dituela, eskaera inprimakian, estatuetan, identifikazio zenbakiaren txartelean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteak Erregistro Orokorrean ere. Gainerako baldintzak betetzen dituen arren dokumentazioa formalki egokitu bitartean ezin dela eskatutako terminoetan erregistratu elkarteak, beraz proposatu dute gaia mahai gainean uztea elkarteak dokumentazioa zuzenduta aurkeztu bitartean,

Gaia aho batez mahai gainean geratu da.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2023ko urriaren 17a

Idazkari orokorra / Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin

4. Inscripción de la asociación BI KOLORETE en el Registro Municipal de Asociaciones. (2023IIIGE0001)

La delegada de cultura y la secretaria señalan que con posterioridad a la convocatoria se ha acreditado que la asociación ha señalado su domicilio a efectos de notificación, su domicilio social y fiscal en la dirección del edificio Lekuona del Ayuntamiento tanto en el impreso de solicitud, en los Estatutos, en la tarjeta de número de identificación fiscal y en el Registro General de Asociaciones del País Vasco. A pesar de cumplir el resto de requisitos, hasta que no se proceda a la adecuación formal de la documentación, no procede registrar la asociación en los términos requeridos, por lo que proponen dejar el asunto sobre la mesa hasta que la asociación presente la documentación subsanada.

El tema queda sobre la mesa por unanimidad.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:45 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 17 de octubre de 2023



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUC5882533-83b2-4bf0-bf44-dfdf474a6bd7**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGOB0018-AKTA/ACTA (ERREENTERIAKO UDALA)